

Juan Luis Mendizabal, Mendi-ri

Atsegin handiz zirriborratzen ditut lerro hauek txartel xume baten gisara, zure herri maiteak, Zarautzek, eskaintzen dizun adiskidetasun eta adeitasun aitortza honekin bat egiteko.

Juan Luis, gizon zintzo, obra-artista zoriontsua, baina, batez ere, pertsona bihozbera eta eskuzabala, egiazko eta benetako gizona, euskaraz esango genuen bezala. Indianoen semea eta bi mundutako gizona bere ere, Mendi amerikanoen, Mundu Berriko azken euskaldunen, belaunaldiaren lekuko eta testigantza sutua izan zen bere haurtzaroan; batzuetan Amerikak egin zituen jendea zen, baina Amerikak beti bere egin zituen pertsona haiek beren izateko era, pentsakera eta bizimodua moldatuz. Mendirengan euskaldun izateko modu oso bat, errotua eta ere berean iragankorra, kostako gizona baina bere herri maitea albo batera sekula uzten ez duena, mamitzen eta distiraz janzten da.

Besarkada maite eta anaiakor bat. Agur!

Juan Luis Mendizábal, Mendi-ri / Juan Garmendia Larrañaga. - En : *Hitza Urola Kosta*, (2004.05.28), 1 orr. - OC. T. 9, p. 653